



EREINTZAREN MENDE LAURDENA

Ereintza elkarteak ez du gure artean aurkezpen beharrik. Ez da elkarte sortu berria, mende laurden baten bizia bai bait du berekin. Elkarte honen eta Erreteriarren euskal bizitza bat eginik ikusi izan ditugu azken urteotan. Ondotxo hazi eta heldutakoa dugu, beraz.

FRAILEEN ESKUTIK

Eskola gehienetan ikasle izanikoen elkarteak zeudela eta, Erreterian beste horrenbeste egin behar zela eta, martxan jarri zen duela hogeita bost urte. Artean «mutiko mukizuak» ziren haiek elkarte trinkoaren oinarriak ipini zituzten. Gazteak biltzeko, elkartzeko, erakunde bezala, zabala, ametskorra, sortu zen. Talde ttipia zen haseran, baina indartuz eta sendotuz joan zen poliki poliki.

Izenak berak jasotzen du ongienik Ereintzaren izana. Bapatean, eta berehala, fruitua jasoko ez bazen ere, ereitea zen asmorik eta egitekorik nagusia. Euskararen eta euskal kulturaren alorrean, kirolaren munduan, herriko ospakizunetan... taldeak ereiteari ekin zion. Dantza taldeak, eskubaloia, antzerkia, euskal jaiak, erregetako kabalgata, abesti sariaketak, idaz sariaketak, eskaparateetakoak... Bazen lanik eta gogorik. Presupuestoaren mugak ematen zituen buruko minak.

EREINTZAREN PAUSU HANDIA

Fraile ikastetxeko elkarte bezala sortu bazen ere, Ereintzak beste pausu handia eman zuen neska-mutilen elkarte bilakatu zenean. Heldutasunera orduan iritsi zela esan daiteke. Garai hartan baziren mendizaleen elkarteak, luistarrak, oargiak, eta abar. Baina guztiz berezia agertzen da Ereintza Euskal Herriko elkartearen artean. Zenbaitak eredutzat jotzen zuen elkarte erreteriarra. Bazen beste herritan Ereintzaren bide berdintsutik jo nahi zuenik.

Neska-mutilen elkarte bezala aberastu egin zen, indarberritu, osatu. Gerztik Erreteriarren bizitzan, azken hogeitaz urte hauetako kondairan, hor agertzen zaigu Ereintza etengabeko lanean.

Eta honenbestez ez dut uste bere lanen aipamen zerrenda hemen egitea bidezkoa denik. Ezaguna bait zaigu erreteriarro bere lana.

Halaz ere, Ereintzaren nortasuna hobekienik adierazten duen punturik aipa nahi genuke.

Elkarte sekularra dugu. Fraileen babespean jaio, eta heldutasunera iritsi zen, bere buruaren jabe zelarik.

Neska-mutilez osatutako elkarte, lanerakoa, hazia erein asmoz hezurmamiua. Ez zen elkarte gastronomikoa, ezta erreteriatibo soila ere. Besterik zen. Bere baitan sortu eta egositako dinamika herri osora hedatzen zen. Eragilea zen garai hartan eta gerostik hildo horri eutsi dio.

Baina besteak beste, elkarte euskaldun bat zela, eta dela, esan genezake. Euskal ikastaroak, jaiak, antzerkiak, dantzak, bertsolari saioak, euskal abesti, idaz saioak. Euskal aukera egin zuen, eta hortik aurrera jo zuen. Aurrera doa.

Labur beharrez, besterik ezean, ez genuke gizon handi baten izena, neurritz altua ez bazen ere, aipatu gabe utzi nahi. Andoni Korta ereintzatarren euskal hezle, edukadore, handi bat izan zen. Ereintzak, eta Erreteriar asko zor dio, ezin ordaindua dugun zorra, noski.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Gisa honetako elkarteetan izan ohi dira halako pattalaldiak, beheraldiak. Ereintzak unerik zailenak garaitu dituela esan genezake. Franco hil eta gero, jendearen politikarengana emana handia izan zen. Ekintza kulturalak, baita kultur elkarteak, gutxietsiak bezala izan ziren. Jendeak mitina maitteagoa zuela zirudien, kultur hitzaldietarako joera ttipiagoa zen. Euskarak berak ere halako makalaldia ezagutu zuen.

Baina gauzak bere onera datoz, eta Ereintzaren eginkizuna itxaropenez ikusten dugu. Lehenago ereindako haziak eman du fruiturik. Aurten ospatu den San Juan Aurruskua lekuko. Baina bere egitekoa bete dezan ereintzak jarraitu behar du. Badugu horretan itxaropena.